BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

4796

EBAZPENA, 2013ko urriaren 8koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariarena, Entre Amigos - Lagun Artean erakundeak 2010eko GLSFren kontura proiektuei laguntzak emateko deialdiaren barruan aurkeztutako «Fortalecimiento de capacidades políticas de mujeres y juventudes, Alta Verapaz y Sacatepéquez, Guatemala C.A.» proiektuari uko egiteko eskaera onartzen duena.

2010eko abenduaren 30eko Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren Aginduaren bidez, Entre Amigos - Lagun Artean erakundeari 425.257 euroko diru-laguntza eman zitzaion «Fortalecimiento de capacidades políticas de mujeres y juventudes, Alta Verapaz y Sacatepquez, Guatemala C.A.» proiektua gauzatzeko.

Erakunde horrek, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari 2011ko irailaren 27an bidalitako komunikazioan, lehenengo ordainketaren parte bati eta bigarren eta hirugarren ordainketei uko-egiteko eskaera aurkeztu zuen.

Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Fondoaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituen otsailaren 27ko 34/2007 Dekretuaren 28. artikuluko 1. idatz-zatiak ezarritakoaren arabera, erakunde eskatzaileak proiektuaren aurreikusitako garapenean funtsezko eragina izan dezakeen edozein gorabeherak jakinarazi beharko dizkio aldez aurretik Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzari, eta proiektuan egin nahi diren aldaketak gauzatu aurretik baimen-eskaera bidali beharko dio, aurrekontuan dituzten ondorioak zehaztuta.

Hala ere, proposatutako aldaketak onartzeko eskumenari dagokionez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu, arautu eta jardunean jarri ondoren (ekainaren 19ko 5/2008 Legea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duena; martxoaren 23ko 95/2010 Dekretua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko erregelamendua onartzen duena; azaroaren 23ko 310/2010 Dekretua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren jarduerak abiaraztea arautzen duena), aipatutako eskumena eta, oro har, laguntza horiek kudeatzeko behar diren ebazpenak ezartzeko Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Zuzendariari dagokio.

Horren ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Entre Amigos - Lagun Artean erakundeari 2010 GLSFren kontura proiektuetarako laguntzak emateko deialdiaren barruan aurkeztutako «Fortalecimiento de capacidades políticas de mujeres y juventudes, Alta Verapaz y Sacatepé. Guatemala C.A.» proiektuari uko egiteko eskaera onartzea.

Horren ondorioz, Erakundeak lehenengo ordainketari dagokion kopurua (justifikatuta ez dagoena) itzuli beharko du, hau da, 166.918,07 euro. Halaber, bigarren eta hirugarren ordainketa egiteko akordioek (170.102,80 euro eta 85.051,40 euro, hurrenez hurren) indarra galdu dute.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, gorako errekurtsoa jarri ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren lehendakariari, hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren

biharamunetik aurrera kontatzen hasita. Gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu eta hiru hilabete igarota oraindik ez bada ezer ebatzi, errekurtsoa ez dela onartu pentsatu beharko da, eta administrazioarekiko auzietarako bidea irekiko da.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urriaren 8a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendaria,
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.